

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3412

1264/2020 EBAZPENA, abuztuaren 13koa, Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko ESIan Erizaintzako zuzendariorde (langileen eta lan-inguru osasungarrien kudeaketa) lanpostua izendapen askez beteko den.

Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko ESIko Erizaintzako zuzendariorde (langileen eta lan-inguru osasungarrien kudeaketa) lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarrien arabera

OINARRIAK

1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan, estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratudun finkoa izatea edo funtzionarioa izatea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean edo haren organismo autonomoetan, edo bestelako langilea izatea, baina, betiere, deialdiko gainerako baldintzak betez.

b) B1 taldeari dagokion titulazioaren jabe izatea.

c) Gutxieneko lan-esperientzia: 5 urte B1 talde profesionalean.

d) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta Osakidetzako Euskara Planean ezarritako gainerako betebeharrak.

2.– Kontuan hartuko diren merezimenduak.

Zuzendariordeztzaren arloaren kudeaketa-memoria egitea.

Erizaintzako, Unitateen Kudeaketan prestakuntza edota lan-esperientzia.

Antolakuntzan eta taldeen kudeaketan prestakuntza edota esperientzia.

Antolakuntzan eta personal sanitarioaren kudeaketan prestakuntza edota esperientzia.

Esperientzia eta/edo ezagutzak ospitaleko pazienteak artatzen.

Erizaintzako pertsonalaren lan-baldintzen araudiari zein arauzko erregulazioari buruzko prestakuntza eta/edo esperientzia.

Lanpostu horretan aritzeko balioa eransten duten eta interesgarritzat jotzen diren merezimendu guztiak aurkez daitezke.

3.– Euskararen ezagutza.

Euskararen erabilera Osakidetzan normalizatzeko den martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera baloratuko da.

4.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

Interesdunek Osakidetza Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko ESiko Pertsonal Zuzendaritzara (Gurutzetako Plaza z.g. 48903 Barakaldo) aurkeztu beharko dituzte eskabideak, 15 egun balioduneko epean, Ebazpen honen iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako eran ere aurkeztu ahal izango dira (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea).

Interesdunek eskabidea datu pertsonal guztiak beteta eta dokumentatutako curriculum vitaerekin batera bidali beharko dute Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzara. Dokumentazioa honakoa izan behar da:

NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.

Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.

Baldintzak betetzea egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.

Kontuan hartzeko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazi bezala egiaztatzea, baldin eta CV aplikazio informatiko korporatiboan jadanik egiaztatuta badaude, eta, beti ere, izangaiak bere eskabidean horrela adierazten badu.

5.– Balorazio Batzordea.

Balorazio batzorde bat osatuko da, batzordeburu zuzendari gerentea edo hark eskuordetzen duena izanik, eta batzordekideak hauek izango dira: Erizaintzako zuzendaria, bi batzordekide (izangaiei eskatutako titulazio bera izan beharko dutenak) eta Pertsonaleko zuzendariordea (idazkari izango dena, hitza eta bozkatzeko ahalmenarekin).

Izangaiek aurkeztutako eskabide eta dokumentuak ikusirik, Batzordeak erabaki dezake eskatzai-leak deitzea elkarriketa batera edota, hala badagokio, aurkeztutako Memoriaren aurkezpena.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, proposamena osatuko da dagokion izendapena egiteko. Batzordeak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, aurretik arrazoitutako txostena osatuta, baldin eta hautagaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak zerrendatuko dira, eta lanpostua eurretako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango dira.

6.– Hautatzeko prozedura.

Inolaz ere ezingo dira baloratu deialdiaren iragarkia EHAAn argitaratzen den egunean eduki ez diren merezimenduak, ezta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen behar bezala aurkeztu eta egiaztatu ez direnak ere.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, proposamena osatuko da dagokion izendapena egiteko. Batzordeak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, aurretik eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

7.– Prozedurari amaiera ematen dion Ebazpena.

Hemen hasitako prozeduraren amaiera (lanpostua esleitzea edo hutsik uztea), Osakidetza Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko ESIko zuzendari gerentearen Ebazpenaren bitartez egingo da; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, intranetean eta Osakidetzaren web-orri korporatiboan argitaratuko da.

Ebazpen horrek EHAAn argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, bertan besterik xedatzen ez bada.

8.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2020ko abuztuaren 13a.

Absentziagatik, zuzendari gerentearen, urtarrilaren 1eko, 3/2015 Ebazpen bidez.

Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko zuzendari medikoa,
EDURNE OMAETXEBARRIA LEGARRA.